

Periferiak hurbiltzen



DIANA FRANCO

Herriko jaietako txosnetan, Odei, Lapurdiko hip-hop taldea entzun dut. Ez pentsa, ez naiz hain moderno, baina batzuetan nire ohituren kobazulotik irten eta holako sorpresak aurkitzen ditut. Euren abestietariko batek euskararen periferietan bizitzearen inguruan hitz egiten du: euskaldun berri etiketaren betikotzeaz, muga eta zentralitatea denaz... Hizkuntzaren periferia-koak parte sentitzearen erronka problematizatzen du abestiak.

Abestia oso iradokitzailea iruditu zitzaidan, eta entzuten nuen bitartean, aste horretan izandako bilera etorri zitzaidan burura. Bilera hartan, gizartearen periferiatan lanean ari diren zenbait eragile bildu ziren: lanean ari direnak bazterkeria sozioekonomiko arriskuan dauden kolektiboekin, indarkeria matxista jasaten duten emakumeekin, ezgaitasun fisiko zein neuronalak dituztenekin... Bakoitza bere borrokan oso sartuta, gainontzekoen borroka urrun; periferien periferiak.

Abestiak aldarrikatzen duen periferietatik mintzatzeko beharrak gogoratu zidan periferian daudenek elkarrekin mintzatzeko duten beharra. Pentsatu nuen zeinen konplexua den gizarte eremuan diziplinarreko begirada izatea, ezagutza larregi behar direlako. Baina askotan, pertsona bakar baten baitan, eragileek modu bakanduan lantzen dituzten arazo guztiak ikusten ditugu: bortizkeria, ezgaitasuna, pobrezia, arrakala digitala...

Periferiak hurbiltzen, periferiak elkarrekin mintzatzen, errealtate baztertzailerak eragiteko bideak eraiki daitezkeela uste dut, periferietan dagoelako, inon baino gehiago, mundua modu kritikoa begiratzeko gaitasuna. ●

MOTZEAN

Jone Forcada hil da Donostian, 92 urterekin eutanasiaren protokoloa aplikatuta, berak hala erabakita. Bizitza osoa eman zion herrigintzari eta euskararen aldeko borrokari. Oso ohikoa zen Donostiako protesta eta ekimenak babesten Forcada ikustea.



Gaixotasun luze baten ondorioz, 74 urterekin hil egin da Jakes Esnal, Donibane Lohizuneko preso politiko ohia. 2022an aterata zen Lannemezango kartzelatik, atzean 32 urte eta erdi lagata Frantziako kartzeletan.

Subflubialaren aurkako manifestazioak ehunka lagun bildu ditu Bilbon. Getxo eta Portugalete elkartuko lituzkeen ibai azpiko tunela gelditzeko eskatu zuten. Proiektua "antisoziala eta ekozida" dela salatu zuten.

Urriaren 10ean hedabideek oihartzun handia eman zioten albiste bati: Sapa armagintzako euskal enpresak AEBetako armadarentzat 7.000 auto-blindaturen ekoizpenean parte hartuko zuen. Ikerketa batek agerian utzi du albistea gezurra zela.

Basque Culinary Centerrek Donostian duen bigarren egoitza inauguratu du, "gastronomia eta sukaldaritza" sustatzeko helburua duena. Donostiako hainbat eragilek protesta egin dute, "operazio urbanistikoak ekarriko duen espoliazioa" salatzeke.

Sakana Bizirik plataforma berria aurkeztu dute Altsasun, besteak beste, Olaztiko Cementos Portland Valderrivas (CPV) lantegian abiarazi nahi den erraustegiari aurka egiteko. "Bizitzaren eta lurraldearen defentsan aritutako tradizio luze baten parte" da plataforma.

Urriaren 18-19ko asteburuan gutxienez 36 palestinar hil zituen Israelgo armadak Gazan, Rafah hirian izandako tiroketan bi soldadu israeldar hil eta gero. Ondoren, "su-etenaren aplikazioa" berriro indarrean jarri duela jakinarazi du Israelgo armadak.